

# 1. Sarrera

## 1.1. EAE-ko ikerketa eta berrikuntza sanitarioaren aurrekariak


EAEko sistema sanitarioak sortu zenetik egin ditu ikerketako eta berrikuntzako jarduerak, baina jarduera horiei buruzko iritzia eta jarduera horiei emandako laguntza nabarmen aldatu izan da denboraren joan-etorrian.

**1983an, duela lau hamarkada, Osakidetza sortu zen, eta egituratze-prozesu bat hasi zen; izan ere, Osasun Sailak Ikerketa Unitateak sortu zituen 1995. urtean, eta 2002an BIOEF - Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioa sortu zuen, zeinak bultzada handia eman baitzion sistema sanitario publikoaren barneko ikerketari eta berrikuntzari.** Arretaren ardatza, epealdi hartan, kudeaketa hobetzea eta ikerketako eta berrikuntzako jarduera handitzea izan zen, pertsonak, proiektuak, finantzaketa eta emaitzak xede zirela. Datuek erakusten dituzte aurrerakada horiek, ikerketa-jardueretarako kudeaketa integralak eta Eusko **Biobankuaren** sorrerak bideraturik. Bestalde, berrikuntza honako alderdi hauetan zentratuta zegoen: zerbitzu sanitarioen hornidura hobetzea, besteak beste, antolaketa-berrikuntzako proiektuen bidez; zerbitzuak egituratzea eta optimizatzea (integrazioa eta kronikotasunari arreta); eta hornitzaile publikoekiko lankidetzaren sustatzea, pazienteen eta, oro har, herritarren parte-hartzea eta prestakuntza bultzatzeko.

Egituratze-etapa horren ondoren, ikerketa babesteko azpiegitura bat sortu zen BIOEFen bidez, hura garatzeko beharrezko ziren erakundeak sortuz. Horrela, 2010ean, **Biodonostia osasun-ikerketako institutua** sortu zen Donostiako Unibertsitate Ospitalean, eta hurrengo urtean, 2011n, **Kronikagune Kronikotasunari buruzko Ikerketarako Nazioarteko Bikaintasun Zentroa** sortu zen.

### 1. Irudia

I+G+B arloko erakundeen maparen bilakaera historikoa.



2014an **Biocruces Osasun-ikerketako institutua** sortu zen Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean. Azkenik, 2018an, **Bioaraba osasun-ikerketako institutua** sortu zen Arabako Unibertsitate Ospitalean (AUO).

Ikerketa- eta berrikuntza-jardueraren egituraketa eta hazkundera koordinatzen eta estrategikoki orientatzen hasi zen, baita haren eragina hobetzen ere, 2013-2020 Osasun Planarekin (plangintza sanitarioarako tresna nagusia). Horrek, oro har, sistema sanitarioarako esparru estrategikoa zehaztu zuen, eta Osasun Sailean ikerketa eta berrikuntza sanitarioko zuzendaritza bat sortzea ekarri berekin. Estrategia hori Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin (ZTBP 2014-2020) eta Espezializazio Adimenduneko Estrategiarekin (RIS 3) lotu zen, Biozientzien eta Giza Osasunaren lehentasunean, EAEn aberastasuna sortzen laguntzeko.

**2016an, osasun-arloko lehen ikerketa- eta berrikuntza-estrategia abiarazi zen 2016-2020 aldirako. Estrategia horretan, Bioarabaren sorrera eta gainerako osasun-institutuen (OII) eraketa eta hazkundera bultzatu ziren:** Carlos III.a Osasun Institutuak Biodonostia eta Biocruces birziurtatu zituen. Azken hori lurraldeko beste ospitale batzuekin integratu zen, eta Biocruces Bizkaia izena hartu zuen. Bestalde, osasun-zerbitzuetako ikerketa-institutu gisa finkatu zen Kronikgune. Gainera, I+G arloko inbertsio sanitarioa hazi eta ikusgarri egin zen; I+G+B arloko proiektuak lehenesteko eta ebaluatzeko prozesuak hobetu ziren; I+G+B kudeaketan aurrerapenak egin ziren, batez ere institutuetan; baterako plangintza sistematikoan aurrerapenak egin ziren; eta pazienteen zein, oro har, herritarren interakzioa eta/edo parte-hartzea areagotu ziren. Beraz, aldi horren ondoren, **ikerketa eta berrikuntza antolatu eta profesionalizatu ziren**, eta produktiboagoa izatea lortu zen, nahiz eta oraindik garapen arauemaileak behar diren gaitasun horiek eta haien funtzionamendua sendotzeko. Era berean, funtsezko lan-arloak identifikatu behar dira, aurrera egiten jarraitzeko ekintzak diseinatu ahal izateko.

